

azpeitianzer?

udal aldizkaria 158 zenbakia
2013ko uztaila

- 
- 1.- ENPLEGU TXEKEAK
 - 2.- PROIEKTU BERRIAK
 - 3.- EKINTZAILETASUNA
 - 4.- MERKATARITZA ETA
LEHEN SEKTOREA

Laguntzeko asmoz

Enplegua bultzatzeko, berrikuntzarako eta dibertsifikaziorako eta ekintzailetasuna sustatzera zuzendutako diru-laguntzak onartu ditu Azpeitiko Udalak



Iraurgi Berritzen
*Garapen
sozioekonomiko
bateratua lortzeko
helburuarekin jaio da*




"Azoka Herritik"
*"Azoka Herritik"
ekimenak ordezkaturako
du betiko Erdi
Aroko azoka*

ale honetan zer?

- 2 Aurkibidea
- 3 Eman pausoa
- 4 Gugandik hasita
- 6 Azoka herritik
- 8 Erreportajea-Plan ekonomikoa
- 12 Iraurgi Berritzen
- 14 Motxak
- 16 Saninaziyuek

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91



Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Abuztuaren 1, 3, 4, 6, 8, 9, 12 eta 14

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Abuztuaren 29

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Abuztuaren 2, 5, 7, 10, 11, 13, 15, 19, 21, 24, 25, 27 eta 30

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Abuztuaren 16, 17, 18, 20, 22, 23, 26, 28 eta 31

zerbitzuak eta erabakiak

Udal zerbitzua

Eman pausoa



Emakumeenganako indarkeriarekin amaitzea Azpeitiko Udalaren lehentasunetako bat da. Borroka horretan, hainbat pauso eman dira; besteak beste, iaz erakunde arteko protokolo bat sinatu zuen eta emakumeen eskura zerbitzu desberdinak jarri dira martxan.

Horregatik, erasotuak izan diren edota eraso baten berri izan dutenei zerbitzu hauek erabiltzera animatu nahi ditugu, ondo informatu eta hala badagokio, salatu dezaten.

Indarkeria sexistaren aurrean baliagarriak izan daitezkeen telefonoak honako hauek dira:

- Larrialdiak 112
- Udaltzaingoa 943 15 13 13
- Ertzaintza 943 08 37 80
- Foru Aldundiko
Gizarte Larrialdiak 943 22 44 11
- Udaleko
Gizarte Zerbitzuak 943 15 71 92
- Udaleko
Parekidetasun saila 943 15 79 28

Guztion ardura da erasoei aurre egitea.
EMAN PAUSOA!

Udal erabakiak

Uztailaren 2an egindako Udalbatzan honako erabakiak hartu ziren:

1.- Udalbatza Osoak 2013ko ekainaren 4ean egindako bilkura onartu zen.

2.-Azpeitian enplegua sustatzeko, berrikuntzarako, dibertsifikaziorako eta ekintzailetasuna bultzatzeko diru-laguntzak eskatu eta jasotzeko arauak osatzen dituzten oinarriak eta 2013 ekitaldiari dagokion deialdia aho batez onartu zen.

3.-Udalaren eta bere erakunde eutonomiadunen 2012 ekitaldiko kontu orokorra aho batez onartu zen.

4.-Azpeitiko Udalaren aurrekontuan 3. kreditu aldaketa, eta Euskara eta Kirol Patronatuan 2. kreditu aldeketen berri eman zen.

5.-Mozioak:


Amnistia Internacional erakundeak aurkeztutako mozioak:

a) Udaberri arabiarren inguruko mozioa Hamaikbat taldearen botoari esker onartu zen. Bildu eta EAJ abstenitu egin ziren.

b) Heriotza zigorraren aurkako adierazpena aho batez onartu zen.

Azpeitiko Herrera Bllguneak 197/2006 doktrina indargabetzea eskatzeari buruzko mozioa Bllldure aldeko botoekin onartu zen. EAJ abstenitu egin zen eta Hamaikabatek ez zuen parte hartu.

Frankiasmoaren altxamendu militar faxista eta ondorengo erregimena salatzea aho batez onartu zen.



Izaskun Zeziaga Ingurumen teknikaria, Eneko Etxeberria alkatea eta Eihari Alberdi bulegoko arduraduna

Etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko informazio bulegoa ireki du Udalak

Krisi ekonomikoak eta energia aurreztu beharrak eragin dute bulegoaren sorrera

Energia Eraginkortasunaren Informazio Bulegoa zabaldu du Azpeitiko Udalak. "Bi arrazoi nagusi izan ditugu bulego hau sortzeko; batetik, krisi ekonomikoa, izan ere Azpeitiko etxeetan egoera latzak sortzen ari dira eta herritar askok fakturak ordaintzeko arazoak dituzte. Bestetik, energia aurrezte; munduak baliabideak baditu baina amaitu egiten dira eta baliabide hauek ondo kudeatzean dago gakoa. Aurrezten bada, gutxiago ordaindu beharko da", agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

"Azpeitian irekitako Energia eraginkortasunaren bulegoa aitzindaria da"

Bulego hau, Ingurugiro Etxea Fundazioak, 2012an garatutako *Energiak Urola Erdiko familiengan duen inpaktu ekonomikoa* proiektuaren baitan sortu da. Azterketa horretan, energia-

eraginkortasun jarrera hobetu ahal izateko, ezagutza sustatzeak izan zitzazkeen onurak adierazi ziren, baina agerian geratu zen energia-eraginkortasuna hobetzeko jarrera biztanleen errenta mailak eta ezagutzak baldintzatzen zituela. Kontzientzia maila minimo bat duten pertsonen artean gehiago daude prest eraginkortasuna hobetzeko. Honek erakusten du ezagutza, eta ondorioz hezkuntza ezinbesteko direla eraginkortasuna hobetzeko.

"Egoera honen aurrean, energiaren erabilera arrazional bat sustatu nahi da herriko etxeetan. Gaur egun, gure herrialdeak igarotzen duen krisi energetikoa, azkenengo urteetako inbertsio faltak areagotu duela kontzientziaturik gaude. Krisi honekin amaitu ahal izateko esfortzu bat egin behar dugu eta energiaren erabilera optimizatu. Gainera, pobrezia-energetikoa ohartu gara. Familiaren ingresoen %10 edo gehiago gastatzen badute energia ordaintzeko, pobrezia-energetikoa aurkitzen direla esan nahi du. Honela, eskualdeko %10a pobrezia-energetikoa dagoela eta informazio

falta dagoela kontutan hartuz, bulegoa sortu da", adierazi du Ingurumen teknikaria den Izaskun Zeziagak. Bulegoaren arduraduna Eihari Alberdi

"Pobrezia energetikoa antzeman dugu Urola Erdiko eskualdean"

izango da eta berak azaldu duenez, bulegoak eskainiko duen informazioa anitza izango da, ondorengo gaien inguruan bereziki:

- Etiketa-energetikoak
- Diru-laguntzak
- Gas/elekttrizitate fakturen interpretazioa
- Araudiak
- Argiztapen eta berogailu sistemak
- Isolamenduak
- Mantentzea

Honela, edozein duda edo galdera duten herritarrek, udaletxeko Hirigintza sailera edo **943 08 09 09** telefono zenbakira deitu dezakete eta bertan Eihari Alberdik beharrezko informazio guztia eskainiko die.



Hondakinen bilketa sistema aldatu da Alde Zaharrean

Ingurumenaren errespetuaren bidetik, hondakinen kudeaketa gaur egungo arazorik larrienetako bat dela jakin badaki Azpeitiko Udalak. Erabaki asko har daitezke arazoari aurre egiteko baina, azken finean, irtenbideak gure esku daude, neurri handi batean behintzat. Horregatik, Udalak Gugandik hasita ekimena abian jarri du.

Azpeitiko birziklapen tasak hobetu nahi badira, hondakinak birziklatzea nahitaezkoa baitaa. Udala martxan

jartzera doan hondakinen kudeaketako sistema berria bi fasetan landuko da, eta lehenbizikoak, besteak beste, Alde Zaharri eragin dio zuzenean.

Honela, uztailearen 1ean Alde Zaharreko bilketa sistema aldatu zen eta ondorioz, Alde Zahar guztian hondakinak dagozkien edukiontzien barruan utzi behar dira derrigorrez.

Alde Zaharreko gaikako bilketa egiteko edukiontzia honako gunetan daude Alde Zaharrean: Artetxe hotelaren aurrean, Enparan kaleko lurrazpiko edukiontzia, Perez Arregi Plazan eta Done Jakue kalean.

Soreasuko auzo-konposta gunea 30 familiak erabiliko dute

Soreasun auzo-konposta gunea jarri da abian. Auzoko iturri alboan kokatu da eta guztira, 30 familiak erabiliko dute gunea berria. Familia hauek gainera, auzo-konpostaren inguruan emandako lehenbiziko ikastaroan hartu zuten parte eta gunea nola erabiltzen den ikasi zuten. Era berean, 5. edukiontzia beste ikastaroa egin zen uztailean eta 250 familia berri animatu dira hondakin organikoa birziklatzera.



Herri osora zabaldutako azoka

Azpeitiko ekonomia sustatzea helburu izango duen azoka irailaren 20, 21 eta 22an egingo da

Herriko hainbat arlo desberdinetako eragileak batu egin dira eta "Azoka Herritik" ekimena antolatu dute irailaren 20, 21 eta 22rako. Modu honetan, urte luzez, Azpeitiko Udalak antolatu izan duen Erdi Aroko azoka ordezkatu du ekimen berriak. Erdi Aroko azokaren balorazioa positiboa egin izan da beti Udalean baina orain, gure herriak bizi duen egoerara moldatu eta egungo behar ekonomikoei egokiago erantzungo dion azoka antolatu nahi da. Herriko hainbat talde eta eragilek ekimen berriaren formatua proposatu dute eta Udalak bat egin du iniziatiba honekin.

"Ekimen honen bidez, bertako produktuak kontsumitzea bultzatu nahi dira herritarrak"

"Azoka Herritik" egitasmoaren helburu nagusia Azpeitiko ekonomia sustatzea izango da: "Azpeitiak bizi duen egoera ekonomiko konplikatuari aurre egiteko neurri eraginkor bat bertako produktuak kontsumitzea dela ulertzen dugu. Bertako produktuen azoka da antolatu nahi duguna. Sektore ekonomiko konkretuen beharrei erantzun nahi die azokak, merkataria edota baserritarren beharrei esaterako, baina baita herritarren beharrei ere. Honela, merkatarien stock azoka, baserri produktuen azoka, artisautza edota herritarren euren etxeetan alferrik dituzten produktuak salmentan jarri, bigarren eskuko azoka ere barmebildu nahi ditu egitasmoak", agertu dute.

Horrela, parte hartu nahi duten talde edota eragileek postu bat izango dute azokan eta egon daitezkeen proposamen, ezagutza, kezka eta proiektuei ateak zabalik daudela agertu dute arduradunek: "eragile bakoitzak egiten duen lana erakutsi nahi zaie herritarrei eta horretarako bakoitzak egokien deritzon moduan (argazkien bidez, egindako lanak erakutsiz...) prestatu dezake bere postua. Taldeak hala nahi izan ezkeru salgai jar dezake daukan materiala, baita bazkide txartelak edota antzekoak egiteko baliatu ere. Postua ipintzeko antolakuntzatik prestatuko den karpa bana izango du talde bakoitzak".

"Azoka honetan parte hartzeko atean zabalik daude"

Izan ere, antolatzaileek ez dute nahi asteburu batean hasi eta bukatuko den azoka soilik izan dadin, zubi eta bide berriak jorratzeko abiapuntu izatea dute asmoz: "herriko talde eta eragile ekonomikoak harremanetan ipiniz eta elkarlanerako zubi berriak eraikiz;

Azpeitian bizitzeko, kontsumitzeko, lan egiteko eta gozatzeko modu berri bat antolatuz; eta bide batez, egun hauek herri solidario, sortzaile eta alai baten erakusleho bihurtuz".

"Azoka Herritik"-en egitarau zehatza irailean jakinaraziko da. Bitartean, egitaraua osatzeko lanean ari dira, baina jasotzen ari diren erantzuna kontuan hartuta, "azokak egitarau zabala eta erakargarria" izango duela uste dute. "Laupabost gune nagusi izango ditu, 100 postutik gora egongo dira, kultur ekitaldi ugari, erakustaldiak, tailer interesgarriak... Asteburu oparoa izango da", aurreratu dute.



Alde Zaharreko Mahaia bilera batean

Herritik antolatuta

Alde Zaharra biziberritzeko asmoz, Alde Zaharreko Mahaia eratu da aurtan. Bertan, Udalarekin batera, Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak, Bertan Merkatarien Elkarteak, tabernariak, Kultur Mahaia eta baserritarrek hartzen dute parte. Mahaia emandako lehen urratsetan argi ikusi da, biziberritzea lortu nahi bada, edukiz bete behar dela Alde Zaharra eta bide horretan, "Herri Azoka" ekimenaren ideia Mahaitik irten da.

"Hainbat eragilek Alde Zaharreko biziberritzearen lan oinarriak adostu dituzte"

Alde Zaharreko biziberritzea zazpi oinarri hauen gainean egitea adostu da.

- 1- Bizitzeko leku atsegina bilakatu.
- 2- Aktibitate ekonomikoa indartu.
- 3- Euskararen plaza.
- 4- Erreferentzia kulturala.
- 5- Aisialdirako gunea.
- 6- Jarduera komunitarioarako gunea.
- 7- Etorkinen integrazioaren bidetik herri kohesionatuaren eredua.

erreportajea

- 
- 1.- ENPLEGU TXEKEAK
 - 2.- PROIEKTU BERRIAK
 - 3.- EKINTZAILETASUNA
 - 4.- MERKATARITZA ETA LEHEN SEKTOREA

Azpeitiko ekonomia laguntzeko asmoa duen plana abian jarri du Udalak

2013ko aurrekontuetatik 700.000 euro bideratuko ditu Gipuzkoako lehenbiziko herria da honelako plan bat egiten

azpeitiko herriko ekonomia suspertu nahi duen plana abian jarri du Azpeitiko Udalak. Gipuzkoa osoan lehenbiziko herria da horrelako plan bat martxan jartzen duena. Uztailaren 2an egindako Udalbatzan hiru alderdi politikoek, Bildu, EAJ eta Hamaikabat taldeek, aho batez onartu zuten plan ekonomikoa.

“Plana beste tresnei lotu behar lotu behar zaie: garapen agentzia, eskualdeko enplegu plana eta formazioa”

Eneko Etxeberria alkateak adierazi duenez, gizartea orokorrean eta Azpeitia bizitzen ari diren krisi ekonomiko gogorra Udal Gobernu taldearentzat lehentasun nagusia izan da legealdizaldi hasieratik: “Azpeitiko ekonomia eraikuntzan oinarritu izan da beti, hiru oinarri zituelarik; altzairutza, eraikuntza eta altzairutegia.



“Bereziki prestatu den Sindikatu Zaharreko teilatupea ekintzailetasun zentroa irekiko da”

Iñaki Portila eta Ainhoa Beristain zinegotziak eta Eneko Etxeberria alkatea, ekintzailetasun zentro berrian.

Krisia, beraz, bereziki sentitu dugu herrian, bortizki iritsi zen. Horregatik, nahiz eta Udalaren eskumena ez izan, sektore publikoak ekonomikoaren motorra izan behar duela uste dugu”. Modu honetan, eta lehenbizikoz Azpeitiko Udalean, 2013ko aurrekontuetan 700.000 euro bideratu dira ekonomiarentzat.

Diru partida hau hiru zatitan banatzen da; batetik, 200.000 euro garapen agentziaren ohiko partida da, bestetik, 150.000 heziketa edo formazio ikastaroetarako zuzenduko da eta, azkenik, diru-laguntzetarako 350.000 euro bideratu dira.

Azpeitiko Udalak abian jarri duen planak, lau lerro nagusi ditu eta diru-laguntzak honako ekimen eta egitasmoetara zuzenduko dira:

1. Langabetuak kontratatzeagatik laguntza: **Enplegu txkeka.**
2. Ekintzailetasun zentroa eta proiektu berriak martxan jartzeko lokalak uztea.
3. Enpresa berriak sortzea. **Ekintzailetasuna.**
4. Merkataritzarako eta baserritarren-tzakako laguntza berezia.

Ekonomia sustatzeko planaren baitako diru laguntzak jaso nahi dituztenek, udaletxean, Azpeitia Lantzenen, Iraurgi Berritzen edota Loiola Berrikuntzan egin behar dituzte eskaerak. Udal arduradunek argi utzi nahi dute plana atzeraginezkoa edo retroaktiboa dela, hau da, 2013ko urtarrilaren

letik urtea amaitu bitartean abian jarritako proiektuek eta diru-laguntzen oinarrietan aurreikusitako ekimen guztiek izango dute laguntzak eskatzeko aukera.

Azpeitiko Udalak emandako pausoa garrantzitsua izateaz gain, gainontzeko erakunde eta eragileen laguntza beharrezkoa dela uste du Etxeberria alkatea: “Lehenengo aldia da Azpeitiko udalbatzar batean era honetako sustapen ekonomikorako plan bat onartu dena. Udalak bere aldetik egingo duen ahalegina ez da nahikoa izango, ordea, beste erakundeek ere neurri bereko erantzuna ematen ez badute. Eusko Jaurlaritza edota Gipuzkoako Foru Aldundiak gure herriari bereziki lagundu behar diote”.

Ekonomia laguntzeko asmoa duen plana

Ekonomia suspertzeko planaren baitan emango diren diru-laguntzek lau lerro nagu si izango dituzte; bereziki ikusi beharko dira baldintzak, baina orokorrean ondorengo hauek izango dira oinarriak:

Langabetuak kontratatzeagatik laguntza: Enplegu txkeka.

Gipuzkoako enpresek azpeitiar langabetuak kontratatzeagatik diru-laguntza jasoko dute.

1. Lan kontratuak mugagabea izan beharko du.
2. Laguntzak: ✱
Lanaldi osoko kontratua eginez gero, 1.800 euro
Lanaldi erdiko kontratuagatik, 900 euro.

Enpresa berriak sortzea. Ekintzailetasuna.

Ekonomia soziala bultzatzea da helburua. Laguntza kopurua eskaeraren arabera izango den arren, irizpideak honako hauek izango dira:

1. Aktibitate berri bat abian jartzen duen langabetuari 2.500 euro.
2. Kooperatiba bat edo enpresa sozial bat sortu eta martxan jartzeagatik 5.000 euro.
3. Proiektu berritzaileak edota estrategikoak abian jarri eta lanpostuak sortzeagatik 10.000 euro arteko laguntza.

Ekintzailetasun zentroa eta proiektu berriak martxan jartzeko lokalak uztea.

1. Ekintzailetasun zentroa zabalduko dute Sindikatu Zaharreko azkenengo solairuan. Ideia bat garatu nahi dutenek beharrezko guztia aurkituko dute bertan; bilera gela, teknologia eta laguntza.
2. Udalak dituen lokalak utzi egingo zaizkie proiektu berriak abian jarri behar dituztenei hitzarmen bidez.
3. Aktibitatea Azpeitian martxan jartzen dutenei lokal pribatuen alokairurako laguntza eskainiko zaie.

Merkataritzarako eta baserritarrentzako laguntza berezia.

1. Ordezkapenak egiteko, edo langileak hiru edota sei hilabetarako kontratatzeagatik 1.200 euro arteko diru-laguntzak izango dituzte merkatarik edota baserritarrek. ✱
2. Alde Zaharrean lehen sektoreko edo aktibitate komertziala ezartzeagatik, 3.000 euro arteko laguntzak banatuko dira.
3. Lehiakortasun komertziala sustatzen duten aktibitate ekonomikoek, berriz, gehienez 10.000 euroko laguntza izan dezakete. ✱

✱ **Beti ere aurrekontuaren mugaren arabera emango dira laguntzak; eskaera asko badira, proportzionalki banatuko dira diru-laguntzak.**

Planaren oinarriak lau diren arren, formazioa bereziki lantzen ari da Udala eskualdeko enplegu planaren baitan; besteak beste, IKT, geriatría laguntzailea, kudeaketa komertziala eta internalizazioa eta lan bilaketa ikastaroak eskaini dira.

Iraurgi Berritzen jaio da Urola Erdiko garapen sozioekonomikoa sustatzeko



Eneko Etxeberria eta Pello Bastarrika alkateak, Jon Peli Uriguen diputatua eta Iraurgi Berritzeneko arduradunak

Iraurgi Lantzenek, Loiola Berrikuntzak eta Ezagutza Guneak bat egin dute

bikoiztasunak sahiestea eta eskualdeko garapen sozioekonomikoa indartzea. Horiek izan dira Iraurgi Lantzen, Loiola Berrikuntza eta Ezagutza Gunea bateratzeko arrazoi nagusiak. Hiru erakundeek garapen ekonomikoari lantzen zuten eta egungo egoera sozioekonomikoari modu bateratuan aurreragotzeko modu eraginkorrena hiru erakundeak fusionatzea izan da, Iraurgi Berrikuntza sortuz.

Bateratze hori egiten aurreneko pausoak eman dituzte: dagoeneko zuzendaritza bateratua eratu dute, kudeaketa plan bateratua ere bai, eta irudi korporatibo eta komunikatibo berria aurkeztu dute. Baina haratago joatea da helburua: bailararen garapen sozioekonomia bultzatzeko arlo eta baliabideak indartu nahi dira. Hala, formaziorako, enplegurako eta beste zenbait arlorako zerbitzuak martxan jartzea aurreikusi dute, besteak beste.

“Ekimen honen bidez, bertako produktuak kontsumitzea bultzatu nahi dira herritarrek”

Jon Peli Uriguen Sozioekonomia diputatua Iraurgi Berritzenen aurkezpenean izan zen eta bere babes osoa eskaini zion proiektuari: “sinergiak aprobetxatzea eta bateratzeak oso positiboak dira”, adierazi zuen. Era berean, dagoeneko martxan dagoen hitzarmen bat sinatu zuen Uriguenek Iraurgi Berritzenekin. Izan ere, Espainiako Gobernuak lehendik iragarritako zuzenbide laguntza bat ukatu egin zion Loiola Berrikuntzari eta Diputazioak 100.000 euroko laguntza eman du, “ekonomiaren garapenerako

Bi lan orientatzaile kontratatzeke deialdia

Lan orientatzaileak kontratatzeke deialdia atera du Iraurgi Berritzenek: bi lanpostu izango dira, irailetik aurrera lanean hastekoak. Bi pertsona horiek lan orientazio zerbitzuan eta enplegu zentroan enplegu eskatzaileei harrera egiteko dira. Bete beharreko ezinbesteko baldintzak, berriak, honakoak dira: bukatutako goi-maila edo erdi-mailako unibertsitateko ikasketak izatea, humanitate arloarekin lotutakoak. Lan-orientatzaile bezala gutxienik urtebeteko esperientzia izatea eta ofimatika, internet eta lan-merkatuaren ezagutzea. Interesatuak zuzendaritzaren 26rako eman beharko dute izena, Lanbiden.

elkarriketa

Eneko Etxeberria

Azpeitiko alkatea eta Iraurgi Berritzeneko lehendakaria

“Baliabideak optimizatu, kudeaketa eraginkorragoa egin eta bailararen garapen ekonomikoari bultzada handiago emateko helburua dugu”



Iraurgi Lantzen, Ezagutza Gunea eta Loiola Berrikuntza, sozioekonomia arloa garatzeko udalak sustengantzen dituen hiru eragile dira. Hiru eragile horiek bat egin eta Iraurgi Berritzen jaio da orain, “baliabideak optimizatu, kudeaketa eraginkorragoa egin eta bailararen garapen ekonomikoari are bultzada handiago emateko”. Bate egiteaz eta helburuak azaldu ditu Eneko Etxeberria Azpeitiko alkatea.

Zein izan da hiru eragileen bateratzearen helburua?

Bailarako egoera kezagarria bizi ditugun garai zailak direla eta. Horri aurre egiteko baliabidea eduki baditugu: Iraurgi Lantzen garapen agentzia daukagu; Ezagutza Gunea ere hor dago, enpresa, erakunde publiko eta ikastetxeen arteko elkarlan bideak jorratzeko; eta Loiola Berrikuntza Fundazioa ere orain urte batzuk sortu zen, ekintzailetasuna, berrikuntza eta garapen teknologikoaren arloak lantzeko, ikerketa arloan. Baina hiru eragile horien artean duplizitateak sortzen zirela ikusi dugu, bakoitza zertarako den identifikatzeko nahasmena dagoela ere bai, edo eta Udalen garapen proiektuekin batzuetan talkak daudela. Horri buelta eman, baliabideak optimizatu, kudeaketa eraginkorragoa egin eta garapen ekonomikoari are bultzada handiago emateko hartu dugu erabakia.

Nola egingo duzue hori?

Kudeaketa plan bateratu bat onartu dugu dagoeneko. Orain arte hiru eragileek eta Azpeitiko eta Azkoitiko udalek euren planak zituzten, baina orain bakarra eta bateratua izango dugu. Zuzendaritza bateratu bat ere sortu dugu, erabaki gune bateratua bat izateko. Eta komunikazio plan bateratu bat ere jarri dugu martxan, Iraurgi Berritzen izenarekin, garatzen ditugun proiektuak hobeto gizarteratu eta komunikatzeko. Horrez gain, eskumen batzuk berriro ere udalen eskuetara pasatuko dira, besteak beste Munoandi, logopedia zerbitzua, taxiaren zerbitzua... Bat egite prozesua hasi egin da eta orain pixkanaka-pixkanaka joango gara kontuak lotzen eta fintzen.

Honek izango al du ereginik egungo sarean?

Gure asmoa sozioekonomia eta garapen arloko leihotze eta alor gehiago irekitzea da: formazioa, enplegua eta

beste hainbat alorretan sakontzeko helburuarekin, eta honek guztiak garapen arloa indartzen du.

Zeintzuk izango dira onurak?


Iraurgi Berritzenek duen helburua ditugun baliabideak hobeto aprobetxatu eta oraindik lantzeke dauden alorrak garatzea, eta horrek, ezinbestean ekarri beharko litzuke onurak sozioekonomia alorrean. Bailararen garapen sozioekonomikoa sustatzeko erreminta sendo eta indartsuago bat sortzea goaz, bertako langile, enpresa eta bestelako eragileen etorkizuna garatzeko lan egingo duena. Formazioa, ikerkuntza, teknologia berriak, enplegua... argi dago horiek direla etorkizun ekonomikoa bermatzeko gakoak, eta horiek bertan eta bertarako landuko dira. Gai hauek epe luzeko gaiak dira, berehalako emaitzak ez dira ikusten. Hala ere, bide onetik goaz, eta bidetik onetik joanez gero, fruituak iritsi egiten dira.

Merkataritza tendentzien jardunaldia



Iraurgi Lantzenek antolatutako Merkataritza tendentzien inguruko jardunaldia uztailaren 10ean ospatu zen Sindikatu Zaharra eraikinean. Bertan, merkataritza tendentziak agertu zituen IKUSMER-ek eta Elkarmediak, "Hemenbuy" plataforma erakutsi zuen. Parte-hartzeari dagokionez, antolatzaileak gustora geratu ziren, "merkataritza bizirik dagoen seinale eta teknologiak duen aukerataz jaiteko gogoarekin azaldu zirelako".

Izarraitzeko ibilbideen gida



Izarraitz. Goietara ibilaldia gida publikatu du Lagun Onak Mendi Bazkunak, Azkoitiko eta Azpeitiko udalen, Iraurgi Lantzenen eta Gipuzkoako Mendizale Federazioaren laguntzarekin. Proiektu honekin, mendizaletasuna eta turismoa uztartu nahi izan dituzte, Izarraitz eta bereziki Xoxote bi herrietatik kanpo ezagutaraziz. Denera eskuko gidaren 10.000 ale argitaratu dituzte eta Loiolako turismo bulegoan, nekazaturismoetan, hoteletan eta Burdinbidearen Euskal Museoan eskuratu daiteke.



Antzerki Topaketetako irudia, Iñaki Martinezena

aurtengo Antzerki Topaketek badute irudia. Iñaki Martinez azpeitiarra gailendu da aurtengo kartel lehiaketan eta beraz, berarentzat izango dira sari bezala ematen diren 900 euroak. Arduradunek aurreratu dutenez, aurren, guztira 40 lan aurkeztu dira lehiaketara eta proposamen guztiak ikusgai izan ziren Betharram aretoan. Modu honetan, Martinez azpeitiarraren lana euskara hutsean egiten diren antzerki topaketa bakarrek irudi bihurtuko da hurrengo udazkenean.

Izarraitzen kanpaldiak arautu dira



Izarraitzen kanpaldia egiteko aurrez eskaera egin beharko da aurrerantzean. Azken hilabeteetan Xoxoten izandako gertaeren ondorioz hartu dute erabakia Udalak, Xoxoteko aterpetxeak eta Lagun Onak Mendi Bazkunak. Horrela, Aste Santuan eta uda sasoian (uztaila, abuztua eta iraila) soilik kanpatu ahal izango da eta horretarako eskera luzatu beharko da aurrez, udaletxean edota Udaltzaingean egin behar dira.

Munoaundin indusketa lanak



abuztuaren 3ra arte indusketa lanak egingo dira Munoaundiko aztarnategian. Euskal Herria eta Espainiako 20 boluntario inguru arituko dira Azpeitia eta Azkoitia artean kokatzen den eremuaren VIII. Indusketa lanak burutzen. Arduradunek agertu dutenez, indusketen aurtengo helburua etxebizitza eta eguneroko bizimoduaren arrastoak bilatzea izango da eta horretarako bi eremutan arituko dira lanean batik bat.



ondo pasatu

Sanindaziyuek

2013

uztailak 24, 25, 27, 28, 30, **31** eta abuztuak 1 **AZPEITIA**

